

## Kontaketa laburren lehiaketa

### Buruko mina

Arratsalde hartan, berandu arte lan egin behar izan zuen Marenek. Gaueko hamarretan sartu zen etxera. Nekatuta zetorren.

–Berandu zatoz, laztana –esan zion Florak.

–Esan nizun hamarretan etorriko nintzela –erantzun zion Marenek.

Flora eder zegoen: mantal loreduna zeraman eta ilea mototsa batean bilduta zeukan.

Marenek afaria prestatzen lagundu zion, eta egongelako sofán afaltzea erabaki zuten: ostirala zen, nekatuta zeuden eta merezi zuten.

Afaltzen bukatu zutenean, Maren sofán etzan zen, burua Floraren magalean jarri zuen eta esan zion:

–Emango al didazu masajetxoa buruan? Aste honetan buruko min handiarekin nabil...

Flora masajea ematen hasi zen, goxo-goxo. Halako batean, zerbait mugitzen ari zela konturatu zen. Begiratu zuenean, zorri txiki bat ikusi zuen. Gero, beste bat, handia. Oso handia. Benetan zorriak al ziren? Bat-batean, beste hiru agertu ziren. Azkar mugitzen ziren, alde batetik bestera. Ileak apartatu zituen eta zulo bat aurkitu zuen Marenen buruan. Zulo beltz handi bat. Zorriak handik ari ziren ateratzen. Batzuk ateratzen ari ziren, eta beste batzuk sartzen.

–Aaaaa!–oihu egin zuen Florak.

*Tak!* Zuzendariak eszena mozteko arbela itxi zuen, eta Flora eta Mareni esan zien:

–Ederki! Aupa, bikote! Grabaketa ongi atera da!

Kamerariak, gidoilariak eta langile guztiak gauzak jasotzen hasi ziren.

Orduan, zuzendariak Florari begiratu zion: geldirik zegoen, isilik eta zuri-zuri. Marenek etzanda jarraitzen zuen eta aurpegia zomorroz beteta zeukan.